

ESKOLAKO AGENDA 21

2015-2016 IKASTURTEA: "BIOANIZTASUNA"

ESKOLEN ARTEKO FOROA 2016.05.16

Bileraren lekua: Igorreko Kultur Etxea

Hasera eta amaiera: 10,00-11,15h

Bertaratutakoak Eskolen arteko Forora:

Dimako Ugarana ikastetxea

Inazio Zubizarreta ikastetxea

Arratiako Institutua

Arratiako Mankomunitateko koordinatzailea: Iñaki Barrenetxea.

Arratiako Mankomunitateko Teknikaria: Aitor Uriguen

Ingurugela-CEIDA: Miren Agirreazkuenaga

ONDOAN, S. Coop: Leire Egaña

Guztira: 30 pertsona

Gai-zerrenda

- Urtean egindako lanen aurkezpena eskolen artean ezagutarazi.
- Udalari aurkeztuko zaizkion proposamenak aurkeztu.
- Arratia mailan hartuko diren konpromiso eta udal eskaera bateratuak lehenetsi.

Aholkularitza Etxeko teknikariak ongi etorria ematen die bertaratutakoei eta eskolen arteko foroaren lan dinamika aurkezten du.

Ondoren, bertaratutako guztiek beraien burua aurkeztu ondoren, Dimako Ugarana, Inazio Zubizarreta eta gero Arratia Institutuko ikastetxeetako bozeramaileek ikasturtean zehar egindako lana aurkezten dute, baita hartutako konpromisoak eta bakoitzak bere udalari luzatuko dizkion proposamenak ere.

Jarraian, ikasleak Arratia mailako konpromiso eta proposamen bateratuak adostu dituzte. Horretarako ikastetxe bakoitzak beraien konpromisoen eta proposamenen zergatiak azaldu dituzte eta gero ikasle bakoitzak proposamen bakar bat bozkatzeko aukera izan du.

Proposamenen artean irabazlea 12 botorekin **"Arriskuan dauden espazioak defendatzea eta zaintzea"** izan da. **"Baso landaketak egiten direnean bertako zuhaitzak landatzea eta identifikatzea"** proposamena hiru ikastetxeek lehendik ekarri duten proposamen berdina izan denez, honi ere lehentasunezko maila eman zaio. Lehenetsitako bi proposamen horiekiko ikasleek ere bi konpromiso bateratu adostu dituzte.

Proposamen irabazleak eta konpromisoak:

Arratia mailako proposamenak udalari	Arratia mailako ikastetxeen konpromisoa
1. Arriskuan dauden espazioak defendatzea eta zaintzea	1. Arriskuan dauden espezieak identifikatu eta zainketa nola egin behar den aztertu.
2. Baso landaketak egiten direnean bertako zuhaitzak landatzea eta identifikatzea.	2. Bertako zuhaitzen kartelen edukien diseinua egin.

Ikastetxe bakoitzak eskolen arteko forora ekarritako proposamenak amankomunean ipintzeko asmoz:

	IKASTETXEEK EKARRITAKO PROPOSAMENAK	Amankomunean ipini ondoren lehentasunezkoak izan direnak:
INAZIO ZUBIZARRETA	1. Herriko bazterrak garbitu bertako animaliak eta landareak arrisku barik hazteko	
	2. Landaketa berrietan bertako zuhaitzak landatzea	
	3. Herriko edukiontzia egokitu, hondakinak sailkatuta isuri ahal izateko.	
	4. Bertako zuhaitzetan kartelak ipini	X
ARRATIARTEKO INSTITUTUA	5. Bertako zuhaitz gehiago landatu, kanpoko espezieak landatu beharrean	X
	6. Panpako lezkak kendu	
	7. Zuhaitzak eta basoak haien osotasunean zaintzea gustatuko litzaiguke, horretarako zuhaitzen ezagutza kartelak ipintzea	
DIMAKO UGARANA	8. Neguan gatzak botatzerakoan kontutan izatea honek landareak eta belarrak erretzen duelako	
	9. Arriskuan dauden espezieak defendatzea eta zaintzea	X
	10. Intsektizida eta pestizidarik ez erabiltzea bazterrak garbitzeko eta beste animalia askorengan kalte handia egiten delako	
	11. Baso landaketak egiten direnean zuhaitz autoktonoak ipintzea	X

Jarraian, eskolarteko foro argazki batzuk bildu dira.



Ikasleak talde lanean, konpromiso eta proposamenak eztabaidatzen



*Arratiako eskolarteko foroan parte hartu duten ikasleen argazkia
MILA ESKER GUZTIOI ETA ZORIONAK EGINDAKO LANAGATIK!*